

# **ARETXABALETAKO HAURRENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUAREN (LUDOTEKA) ETA UDALEKU IREKIEN ZERBITZUAREN KONTRATUA ARAUTZEN DUEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA.**

## **1. TITULUA. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

### **1.1. Gazteria politika.**

Aretxabaleako gazteria politikaren xede nagusia da herriko hurrei, nerabeei eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa bakoitzak dituen bi alderditan:

- berezko balioa eta esanahia duen bizi etapa gisa.
- Heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen bizi-etapa gisa.

### **1.2. Gazteria zerbitzuak**

Gaztematika, Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren arabera, Gazteria politika bultzatzeko tresna nagusiak bizi-etapa bakoitzari zuzendutako zerbitzuak dira:

- Haurrentzako Balioanitzeko zerbitzua, nerabeentzako balioanitzeko zerbitzua eta gazteentzako balioanitzeko zerbitzua.

Zerbitzu horietatik lehengo zerbitzua emateko helburua du baldintza plegu honek: Haurrentzako Balioanitzeko Zerbitzua- HBAZ aurrerantzean-.

HBAZ zerbitzuarekin, aisialdi eskaintza egonkorra, etengabea eta koherentea zuzentzen zaie hurrei, euren garapen osoa, gozamina eta autonomia pertsonala bilatzen dituen.

Gaztematikak HBAZ zerbitzua zehazteko oinarrizko dokumentua landu eta argitaratu du eta hori izango da baldintza plegu honen erreferentzia teoriko orokorra.

### **1.3. Zeharkako lerroak**

Zerbitzuan garatutako jarduera guztietan funtsezkotzat hartzen ditugu 3 zehar lerro hauek:

1. Euskara
2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna
3. Inklusioa-integrazioa
4. Haurren parte hartzea bultzatzea

### **1.4. Gazteria Zerbitzuen jarduera arloak**

Haurrentzako Balioanitzeko Zerbitzuan, sei jarduera-arlo zabal hauek eskaintzen zaizkie hartzaileei:

1. Informazioa
2. Orientazioa
3. Bide-laguntza
4. Aisi hezitzailea
5. Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak
6. Sorkuntzarako eta produkziarako bideak

Jarduera arlo horien inguruko zehaztapen gehiago “Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema” dokumentuan daude.

## **2. KONTRATUARI BURUZ ORO HAR**

### **2.1. Xedea**

Oinarri hauen xedea, Aretxabaletako Udalak, bere gazteria politikaren barruan Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua, HBAZ (ludoteka eta udaleku irekiak), emateko baldintza teknikoak arautzea da.

Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren planifikatze eta antolaketa lanetan gauzatzen da, agiri honetan ezarritakoarekin bat etorrita eta Aretxabaletako Udalaren zuzendaritzapean.

Zehazki zerbitzuak, ondokoa eskaini behar du:

1. Ludoteka
2. Udaleku irekiak

### **2.2. Zerbitzuaren ezaugarriak.**

HBAZ gizarte hezkuntzako zerbitzu publikoa da, haurrei zuzendutakoa. Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arretaren tokiko sarean txertatzen da. Sare horren baitan era koherente eta koordinatuan lan egin behar du.

Zerbitzuaren eskaintza hartzaileen beharretatik eta interesguneetatik abiatuta osatuko da eta haien parte hartzea sustatuko da antolatze maila guztietan.

Zerbitzu honetan 1.4. oinarrian aipatutako sei jarduera-arlo zabalak jorratuko dira eta eskaintzan lokalen barruan zein kanpoan burutzeko jarduerak egongo dira.

### **2.3. Zerbitzuaren hartzaileak.**

1. Ludoteka: 3-12 urte bitarteko haurrak
2. Udaleku irekiak: 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako uztaileko aisialdi eskaintza da.

Adin tarte hauetan, zerbitzu bakoitzean egokitzen diren txandak edo taldeak proposatu ahalko dira, beti ere udalarekin alde zuzenetik adostuta.

Gainera, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira haurren heziketaren ardura duten helduak ere (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, e.a.)

Zerbitzuko hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskaintutako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko.

Zerbitzuko hartzaileek beren eskura jarritako ekipamendua eta materiala helburuen arabera errespetatu eta erabiltzeko betebeharra dute.

### **2.4. Zerbitzuaren helburuak**

Haurren beharrak asetzeko ondoko helburu hauek landuko dira:

- Haurrak aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Haurrentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeke gune aproposa eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- Haurren artean euskararen erabilera bultzatzea eta euskal kultura sustatzea.
- Haurrak Aretxabaletako herritar aktiboak izateko, bertako bizi ohituretan, jardueretan, txertatzea.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna ziurtatzea.
- Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetzatza, elkartasuna.
- Haurren parte hartze aktiboa eta askea bultzatzea.
- Haurrek jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea eta baita zaletasunak

garatzeko ere.

- Behar bereziak dituzten haurrek zerbitzuak erabiltzeko aukera erraztu.
- Haurren informazio eta orientazio beharrei erantzutea.

Egin beharreko lana, atal honetan azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du esleipendunak, beti ere Aretxabaletako Udalaren zuzendaritzapean.

### **3. ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ**

Zerbitzu honen arduradun nagusia Aretxabaletako Udala izango da, gazteria zerbitzuaren bitartez. Oro har, Udalak zehaztutako orientazioak eta arauak beteko ditu enpresa esleipendunak. Orientazio horien zehaztasunak 3. atal honetako hurrengo puntuetan garatuta azaltzen dira.

#### **3.1. Zuzeneko arreta**

Ludoteka eta udaleku irekietan, herriko udal instalazioak, kalea eta auzoetako beste baliabide batzuk izango dira haurrei arreta emateko gune nagusiak.

Ludotekaren kasuan, familiak zerbitzuko zeharkako hartzaile diren neurrian, zerbitzua beraiengana gerturatzeko eta zerbitzuan parte har dezaten bultzatzeko ekimenak sustatuko dira.

Zerbitzu hauetan, sei jarduera mota burutuko dira (informazioa, orientazioa...) eta eskaintza zehatza erabiltzaileen behar eta interesguneetatik abiatuko da. Jarduera proposamen zabala izango du, horietan oinarrituta haurrekin eguneroko aisi proposamenak adostuko dira.

Haurren interes eta gogoak azaleratu eta landuko dira zerbitzuan eta beraien parte hartzea bilatuko da zerbitzuko eskaintzaren antolaketa fase desberdinetan.

Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurreikusiko dira non haurrek modu askean, jolastu, hitz egin edo atsedean hartzeko aukera izan dezaten. Langilearen eta erabiltzailearen arteko harreman hezitzailea ezinbesteko erreminta izango da eskaintza antolatzerakoan. Zerbitzuaren eskaintzan honako hauek sartzen dira: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, ikuskizunak, irteerak, herriko ekimenetan parte hartzea .... Era berean sustapen lana egingo da haurrak herritar aktiboak izan daitezen, gizartean jarrera arduratsuak izan dezaten.

Helburuen atalean zehaztu bezala, euskara da zerbitzuetako arreta eta lan hizkuntza. Euskararen aldeko jarrera positiboak eta euskal kulturaren aldeko lana bultzatuko da era iraunkorrean.

#### **3.2. Barne lana**

Zuzeneko arretaz gain, zerbitzuak bere lana planifikatu, komunikatu eta ebaluatuko du eta barne lan hori burutzeko uneak aurreikusi behar dira lana antolatzerakoan.

##### ***Planifikazioa***

Planifikazioaren bitartez helburuak lortzeari begirako jarduerak, estrategiak eta ekimenak zehaztuko dira. Horretarako zerbitzuaren aurrekariak hartu beharko dira kontuan: aurreko ebaluazioak, erabiltzaileen proposamenak eta baliospenak, besteak beste.

Arreta berezia eskainiko zaie jardueren programazioari eta plangintzaren eta erabakiak hartzeko prozesuaren izaera parte hartzaileari. Planifikatu beharko da, beraz, haurren parte hartzea nola sustatu.

Zerbitzuaren 3 planifikazio egingo dira: ikasturtekoa, hiru hilekoa eta hilekoa. Plangintza egiterakoan gazteria teknikaria ere egongo da.

##### ***Ebaluazioa***

Haurren parte hartzea funtsezkoa izango da zerbitzuaren ebaluazioa egiteko.

Ebaluazio txostenetan informazio hau jaso beharko da:

- Datu kuantitatiboak ( bertaratzea, jardueretako parte hartzea, baliabide materialak,...) datu kualitatiboak: haurren asebetetze maila, jarrerak, baliospenak, genero perspektiba,...) eta

zerbitzuak hobetzeko proposamenak.

Ebaluaziorako momentu desberdinak aurreikusiko dira: eguneroko ebaluazioa, hiru hilekoa eta urtekoa. Eguneroko ebaluazioa dagokion eguneko fitxa betetzean egingo da. Hiru hilean behin ebaluazio txostenak aurkeztuko dira udalean eta hurrengo 3 hileko plangintzak zehaztuko dira elkarlanean. Urteko txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira.

Gazteria zerbitzuak egingo dio zerbitzuari jarraipena.

### ***Koordinazioa***

Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren martxa egokirako derrigorrezko eginkizuna da koordinazioa. Izan ere, haurren beharrak eta interesak anitzak izanik, horiei erantzuteko arlo eta eragile ezberdin askorekin batera elkarlanean aritu beharko da; (euskara zerbitzua, kultura, kirola, hezkuntza...).

### ***Zerbitzuaren zabalkundea***

Zerbitzuaren zabalkundeaz esleipenduna arduratuko da, beti ere, udalaren irizpideak jarraituta. Zerbitzuaren inguruko informazio orokorra (helburuak, lan ildoak...) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak...) eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritar orori, alde zuzenetik esleipendunak eta udalak adostutako zabalkunde plan bati jarraiki. Plan horretan zehaztuko dituzte zein informazio zabaldu noiz (ikasturte hasieran, opor garaian, data zehatzetan...) zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea,...) eta zein bide erabili (komunikabideak, esku orriak, Aretxabaletako webgunea, agenda, sare sozialak...).

### ***Etengabeko prestakuntza***

HBAZ zerbitzuko langileen prestakuntza (ludoteka eta udaleku irekiak) esleipendunaren erantzukizuna izango da.

Bestalde, udalak bideratu ahalko duen gazteria lan taldeetan, zein lurralde mailan Gaztematikaren baitan sortutakoetan ere (hezitzaileen foroak, lan talde zehatzak...) esku hartzeko ahalegina egingo du esleipendunak.

### **3.3. Zehar lerroak garatzea**

Oinarri hauetako 1.3. puntuan zehaztutako zeharkako lerroak garatzeko estrategiak abiaraziko dira **ikasturte bakoitzean**, jarraian azaltzen diren irizpideak kontuan hartuta:

- Euskara:

Euskara izango da HBAZ zerbitzuko hizkuntza, bai laneko hizkuntza moduan (harremanetarako, koordinaziorako, antolatzeke...) eta baita hartzaileei egingo zaien zuzeneko harreran ere. Horretarako beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana....

Erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko. Zentzu honetan, haur etorkinentzako ere hizkuntza errefortsurako erreferente izan behar du HBAZ. Hizkuntzaren erabilera eta ikasketa sakontzeko metodologia eta estrategiak barneratu eta martxan jarriko ditu zerbitzuak.

- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

HBAZ zerbitzuan nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna errealitate bilakatzeko etengabeko lana egingo da.

- Inklusioa-integrazioa

Haurren artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta zerbitzuak, arreta berezia eskainiko die premia bereziak dituzten pertsonen (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisiko, psikiko eta zentzumenezkoak, jarrera arriskutsuak dituztenak, etorkinak...).

- Parte hartzea

Haurren iritzia kontuan hartzeaz gain, antolaketa prozesuan haurren parte hartzea sustatuko da, adin bakoitzari dagokion metodologia egokienaz baliatuz.

## **4. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALA**

### **4.1. Azpiegiturak**

#### **LUDOTEKA**

Udalak lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko du (lokalaren eta bulegoaren altzariak, ekipamendu informatikoa eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta internetako konexio gastuak ere udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da.

Bulego materialaren horniketaz eta lokala eta ekipamenduaren erabilera zuzenaz esleipeduna arduratuko da. Lokala eta bulegoa txukun mantentzearen ardura esleipedunarena ere izango da. Baita bestelako erabileragatik sortu daitezkeen gastu, tasa eta gainerako zergak.

#### **UDALEKU IREKIAK**

Herrian zehar eta herriko instalazio ezberdinetan izango dira udalekuak eta hauen erabilera, udalak aurrez ikastetxeekin eta udal instalazioen arduradunekin adostuko du. Udala hauen kosteaz arduratuko da.

Udalekuetan, beharko den material eta ekintzetarako gastuak esleipendunaren kontura izango dira: mahai jokoak, bestelako jokoak, tailerretarako materiala, irteerak, jarduera bereziak...

Erabilitako instalazioak eta oinarrizko ekipamendua egoera onean mantendu beharko dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili. Kalterik gertatzen bada, esleipendunaren kontura izango dira kostuak.

### **4.2. Bitarteko materialak**

Zerbitzuko ekintzak burutzeko behar den materiala erosteko urteko gutxieneko diru kopuru bat zehaztuko da lizitazio prezioaren barruan udaleku irekietan 7000 euro material eta ekintzetarako eta ludotekan 1500 euro gutxienez. Zenbateko hori finkoa izango da eta ezin izango da behera hobetu. Kopuru hori derrigor erabili beharko du esleipendunak ekintzetan edota material erosketan eta gastu horiei dagokien zuriketa eta ordainagiriak ebaluazioarekin batera aurkeztu beharko dizkio udalari, diru sarreren balantzearekin batera. Arrazoiren bategatik ekintzetarako materiala erosteko zehaztuta zegoen kopuru osoa urtearen barruan erabiliko ez balitz, erabili gabeko diru kopurua (zehaztutakoari erabilitakoa kenduta) udalari itzuli beharko dio lizitatzailleak, zuriketa aurkeztearekin batera.

## **5. ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK**

### **5.1. LUDOTEKA**

1. Irailaren erditik ekainaren erdira arte. Astelehenetik ostiralera 16:45etik 19:30ak arte.

### **5.2. UDALEKU IREKIAK**

Haurrentzako, uztailean, astelehenetik ostiralera bitartean lehen 3 astetan (15 egun) izaten dira udaleku irekiak. Ordutegia ondokoa izango da: 10:00-12:30 15:00-17:00.

Dena den, ordutegi hauek eta egutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera, aldaketak izan ditzakete. Nolanahi ere zehaztutako ordu kopurua errespetatuta

## 6. ZERBITZUKO LAN TALDEAK ETA ESLEIPEDUNAREN BETEBEHARRAK

### 6.1. Giza baliabideak

#### 1) Ludoteka zerbitzua

Bi hezitzaile egon beharko dira, astelehenetik ostiralera, irailaren erdialdetik ekainaren erdialdera arte. Irailean, astebeteko prestaketa aurreikusten da, urteko planifikazioa, ate irekien prestaketa... eta ekainean inbentarioa eta amaierako txostenak eta ebaluazioa ikustea.

Astelehenetik ostiralera:

Arreta zuzena: 16:45tik 19:30

Barne lanerako: 4 ordu aurreikusten dira gutxienez. Banaketa, esleipenduna eta gazteria zerbitzuko arduradunak adostuko dute ikasturtean zehar. Ordu hauek, prestaketaz aparte, formazio, koordinazio eta antzeko lanetarako erabiliko dira.

Barne lanerako lan ordu hauetaz gain, iraileko hirugarren astean eta ekaineko hirugarren asteak, planifikazio, ebaluazio txosten, inbentario eta abarrerako erabiliko dira. Egun hauetan 4 orduko lan jarduna aurreikusten da.

Ludotekariak izango dira udaleko gazteria zerbitzuarekin koordinatuko direnak.

#### 2) Udaleku irekiak

**Bi koordinatzaile** egon beharko dira, hauek ludotekako langileak izango dira.

Udalekuen prestaketa ekainean zehar egingo dute.

Uztailean, 9:30etatik 13:00ak arte eta 14:30tik-17:00ak arte egon beharko dira lanean gutxienez.

**Begirale kopurua**, haurren izen-emate kopuruaren baitan zehaztuko da, beti ere ekainaren 25eko 170/1985 dekretuko 2.artikulan, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, udaleku irekien, lan kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea araupetzen duena zehazten diren ratioak errespetatuz.

Begirale lanetan arituko direnen ordutegia, uztailean zehar gutxienez, goizeko 9:30tik 13:00etara eta 14:30tik-17:00etara izango da.

Aurrez zehaztutako egunetan, planifikaziorako saio batzuk antolatuko dira begirale guztiak parte hartu beharko dutenak, udalekuetako koordinatzaileek antolatuko dituztelarik. Saio hauek, guztira, 8 ordu iraun dezakete.

Esleipenduna behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun, higiene eta arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Kontratuak iraun bitartean langileren bat aldatu behar bada, eskatutako profila betetzen duen ordezkoa jarri beharko du esleipendunak.

### 6.2. Langileen profilak

Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

#### 1) Ludotekako hezitzaileak

18 urte beteak izatea.

Gizarte Hezkuntza Gradua izan beharko dute edo ikasten egon beharko dute edo Heziketaren zein Gizarte Zientzien arloan beste titulazioa bat eginda izatea (maisutza, pedagogia, psikologia,

soziologia...)  
EGA Euskararen gaitasun agiria

## 2) Udalekuetako begiraleak

18 urte beteak izatea

EGA, euskararen gaitasun agiria izatea edota euskarazko maila ona izatea (kasu honetan, hori baieztatzeko udalak prestatu ahalko ditu frogak batzuk).

Gutxieneko baldintza horietaz gain, udalak eta udaleku irekietako koordinatzaileen artean adostuko da begirale izateko puntuazio sistema urtez urte.

### 6.3. Kontratutako diren langileen agirien aurkezpena

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa esleipendunak, zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

Gizarte Segurantzaren alta emana izatea egiaztatzen duen agiria

Lan kontratuaren kopia

Eskatu diren beharrezko prestakuntza betetzen dutenaren agiria (titulazioa, eskarmentua, hizkuntza gaitasuna)

## 7. EUSKARA

**7.1. Hizkuntza gaitasuna:** Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik:

1. Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute ludoteka zerbitzuaz arduratutako diren langileek eta udalekuetako arduradunak.
2. Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute udalekuetako begiraleak.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- 2) Zerbitzua eman behar duten pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- 3) Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

**7.2. Hizkuntza paisaia:** Hizkuntza paisaia osatzen duten errotulu, horma-irudi, ohar eta gainerakoak euskaraz egongo dira.

**7.3. Erabilera herritarrekin:** Haurrekiko harremana euskaraz gauzatuko da. Guraso eta bestelako helduekiko harremana ere euskarazkoa izango da, beraiek bestelakorik eskatzen ez badute. Horrelakoetan, komunikazioa euskaraz eta gazteleraz egingo da, euskarazkoari lehentasuna emanez.

**7.4. Erabilera administrazioarekin:** Kontratu honen bidez Udalaren eta esleipendunaren artean sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.

## **8. INBENTARIOA**

Esleipendunak hasierako inbentarioa egingo du udalarekin batera eta hau, kontratuan irauten duen bitartean eguneratua eduki beharko du, zainketaz arduratuko da eta udalari jakinaraziko dio edozein desagerketa eta hondatzea gertatuz gero.

Hasieran dauden ondare guztiak eta esleipendunak instalakuntzei gehitu diezazkiokeenak Aretxabaletako Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean, beti ere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

## **9. IKUSKAPENA**

Udalak HBAZ zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuska ditzake, esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko. Esleipendunaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez ikuskatu ahal izango du. Administrazioak zerbitzuak kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak zerbitzuak etengabe ikuskatu behar ditu barrutik.

## **10. ESLEIPENDUNAREN ARDURA**

Esleipendunaren ardura da kontratua betetzerakoan sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Halaber, zerbitzua ematerakoan hartzaileek jasan lezaketan edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorra ere bere gain hartu beharko du.

Horretarako, eta zerbitzua ematen hasi aurretik, enpresa esleipendunak zerbitzu honen xede guztia estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzailearen batekin.

## **12. KONTRATUAREN PREZIOA**

Lehen urterako kontratuaren prezioa, 78000 eurokoa izango da gehi BEZari dagokion 7.800 euro, eta kopuru hori lizitatzailleek hobetu egin dezakete beherantz eskaintzean.

Kontratuaren prezioaren barruan 7000 euro gutxienez urteko udalekuen materialerako eta 1500 euro gutxienez ludotekako materialerako izango dira. Zenbateko horiek ezingo ditu gutxitu lizitatzailleek beraien eskaintzetan eta derrigor erabili behar dira zerbitzu horientzako materiala erosteko eta koste zerbitzuari atxikita ez dauden langile espezializatuei ordaintzeko... .

Prezioan sartuta egongo dira kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.



# **PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁN EL CONTRATO DEL SERVICIO POLIVALENTE PARA LA INFANCIA (LUDOTECA) Y LAS COLONIAS ABIERTAS DE VERANO.**

## **1. TITULO, INTRODUCCION Y JUSTIFICACION**

### **1.1.- Política de juventud.**

El objetivo principal de la Política de Juventud del Ayuntamiento de Aretxabaleta es facilitar con estabilidad y continuidad que las niñas, niños, adolescentes y jóvenes desarrollen y disfruten de su infancia, adolescencia y juventud, en su doble dimensión:

- Como etapa vital con valor y significado en sí misma.
- Como etapa vital que hace posible un proceso progresivo de transición exitosa y satisfactoria a la condición adulta.

### **1.2. Servicio de juventud**

Según Gaztematika, Sistema para la Promoción de Infancia y Juventud de Gipuzkoa, los principales instrumentos de promoción de una política de Juventud lo constituyen los servicios orientados a cada etapa de la vida:

- El servicio Polivalente para niños, el servicio polivalente para adolescentes y el servicio polivalente para jóvenes..

El presente Pliego de condiciones tiene como objetivo ofertar el primero de los servicios mencionados: el Servicio Polivalente para la infancia (en adelante HBAZ ).

Con el servicio HBAZ se ofrece a los niños una oferta de ocio permanente, continua y coherente que persigue su desarrollo integral, goce, y autonomía personal.

Gaztematika ha elaborado y publicado el documento básico para la implementación del servicio HBAZ, que constituirá el referente teórico general de estos pliegos de condiciones.

### **1.3. Líneas transversales**

En todas las actividades desarrolladas en el servicio son fundamentales las siguientes líneas transversales:

1. Euskera
2. Igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres
3. Inclusión-integración
4. Fomento de la participación de los niños

### **1.4. Areas de actuación del Servicio de Juventud**

En el servicio polivalente para niños, se ofrecen las siguientes áreas de actuación:

1. Información
2. Orientación
3. Acompañamiento
4. Ocio educativo
5. Canales para la expresión y participación
6. Cauces para la creación y la producción

En el documento denominado, "Sistema para la Promoción de Infancia y Juventud" se dan más detalles de las mencionadas áreas de actuación.

## **2. SOBRE EL CONTRATO EN GENERAL**

### **2.1. Objeto**

Es objeto de estas bases la regulación de las condiciones para la oferta del ayuntamiento de Aretxabaleta, dentro de su política de juventud, del Servicio Polivalente para la infancia HBAZ, (ludoteca y colonias abiertas).

La ejecución del servicio se formaliza en la planificación y organización del servicio, de acuerdo a lo estipulado en el presente Pliego y bajo la supervisión del ayuntamiento de Aretxabaleta.

El servicio ofertará lo siguiente:

1. Ludoteca
2. Colonias abiertas

### **2.2. Características del servicio.**

HBAZ es un servicio público de educación social dirigido a niños. Se circunscribe en la red de atención a niñas, niños, adolescentes y jóvenes, en la que trabajará de forma coherente y coordinada.

La oferta del servicio tendrá como base las necesidades e intereses de los destinatarios, y en ella se fomentará la participación de los mismos en todas las áreas de organización.

En el presente servicio se trabajarán las seis áreas de actuación señaladas en el punto 1.4. y en la oferta se tendrán en cuenta actividades a desarrollar tanto en el interior de los locales como en el exterior.

### **2.3. Destinatarios del servicio.**

1. Ludoteca: Niños-as de entre 3-12 años

2. Colonias de verano: se trata de una oferta de ocio desarrollada en julio destinada a niños-as de entre 3 y 12 años.

Se organizarán grupos o tandas de niños-as de dichas franjas de edad, las cuales serán acordadas previamente con los servicios municipales.

Además, aunque no sean destinatarios directos del servicio, se tendrán en cuenta como destinatarios transversales del mismo, a todos aquellos adultos-as responsables de la educación de los niños-as (padres/madres, educadores/as, profesores/as etc. .)

Los destinatarios del servicio tendrán derecho a recibir el servicio de manera adecuada y efectiva, de acuerdo a los objetivos marcados y en base a la programación acordada..

Los destinatarios del servicio tienen la obligación de respetar y utilizar el equipamiento y material puesto a su disposición.

### **2.4. Objetivos del servicio**

Se trabajarán los siguientes objetivos.

- Disfrutar del tiempo libre de forma activa, participativa, creativa y saludable
- Ofrecer a los niños-as el marco adecuado para el desarrollo de relaciones personales significativas, tanto con los-las de su edad como con los-as mayores. y
- Impulsar el uso del euskera entre los niños-as y fomentar la cultura vasca.
- Introducir a los niños-as en las costumbres, actividades del municipio para que puedan convertirse en ciudadanos-as activos de Aretxabaleta.
- Garantizar la igualdad de oportunidades entre niños-y niñas.
- Fomentar la educación en valores: el respeto , la convivencia, la solidaridad.
- Fomentar la libre y activa participación de los niños-as
- Ofrecer a los niños.-as la posibilidad de conocer y participar en nuevas actividades y desarrollar nuevas aficiones.
- Facilitar el uso de los servicios a los niños con necesidades especiales.
- Responder a las necesidades de información y orientación de los niños-as.

El adjudicatario dirigirá el trabajo a llevar a cabo al cumplimiento de los objetivos señalados, bajo la supervisión del ayuntamiento de Aretxabaleta..

## **3. SOBRE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO**

El responsable principal del proyecto es el Ayuntamiento de Aretxabaleta, por medio de su servicio de Juventud. La empresa adjudicataria cumplirá las orientaciones y normas dictadas desde el ayuntamiento. Dicha orientación viene detallada a continuación..

### **3.1. Atención directa**

Las zonas principales de atención a los niños-as tanto de la ludoteca como de las colonias abiertas serán las instalaciones municipales, la calle y otros medios de los barrios.

En lo que respecta a la ludoteca, en la medida en que las familias son destinatarias transversales del servicio, se fomentarán actividades para acercarles el mencionado servicio y participar en el mismo.

Se llevarán a cabo seis actividades (información, orientación...) y la oferta concreta tendrá su punto de partida en los intereses y necesidades de los usuarios-as, que además serán la base de las propuestas que se acordarán con los propios niños-as..

Se visibilizarán y trabajarán los intereses y deseos de los niños-as y se fomentará su participación en las distintas fases de organización del servicio.

Se prevé, además de actividades organizadas contar con momentos libres, en los que los niños-as puedan jugar, hablar o descansar libremente. A la hora de organizar la oferta será elemento indispensable la relación educadora entre el trabajador-a y el usuario.-a. En la oferta del servicio se prevén las siguientes: actividades no dirigidas, actividades

dirigidas, espectáculos, salidas, participación en actividades municipales....Así mismo se llevará a cabo una labor de fomento de manera que los niños-as se conviertan en ciudadanos-as activos-as y tengan una actitud responsable en la sociedad.

Como se ha señalado en el punto de objetivos, el idioma de trabajo y de atención en el servicio será el euskera- Se fomentarán de manera generalizada, actitudes positivas en torno al euskera y el trabajo a favor de la cultura vasca.

### **3.2. Trabajo interno.**

Además de una atención directa, el servicio planificará su trabajo, lo comunicará y evaluará; para ello, en el momento de planificar todo el trabajo, se preverán los momentos adecuados llevar a cabo dicho trabajo interno.

#### **Planificación**

Mediante la planificación se detallarán las actividades y estrategias previstas para la consecución de los objetivos marcados. Para ello se tendrán en cuenta los antecedentes del servicio: evaluaciones anteriores, propuestas y estimaciones de usuarios, entre otros.

Se pondrá especial atención a la programación de actividades y a la naturaleza participativa de la planificación y del proceso de toma de decisiones. Será preciso planificar por tanto cómo orientar la participación de los niños-as

Se llevarán a cabo 3 planificaciones: la del curso escolar, la trimestral y la mensual. En dicha planificación participará también la técnico de juventud.

#### **Evaluación**

Será necesaria la participación de los niños-as a la hora de evaluar.

En el informe de evaluación se recogerá siguiente:

- Datos cuantitativos (asistencia, participación en las actividades, medios materiales,...) datos cualitativos: nivel de satisfacción de los niños, actitudes, estimaciones, perspectiva de genero,...) y propuestas de mejora del servicio.

Se preverán diversos momentos de evaluación: evaluación diaria, trimestral y anual. La evaluación diaria será realizada al rellenar la ficha diaria. Trimestralmente se presentarán informes de evaluación en el ayuntamiento y se detallará la planificación del siguiente trimestre en equipo. Al finalizar el año se presentarán los informes anuales.

Será el servicio de Juventud el encargado de su seguimiento.

#### **Coordinación**

Un elemento indispensable para la buena marcha del Servicio Polivalente para Niños-as es la coordinación. Teniendo en cuenta que las necesidades e intereses de los niños-as son variados, será necesario trabajar en equipo con distintos agentes y áreas para poder dar respuesta a los mismos (euskara, kultura, kirola, hezkuntza...) .

#### **Difusión del servicio**

La difusión del servicio correrá a cargo del adjudicatario, ajustándose en todo momento a los criterios del ayuntamiento. Se ofrecerá a los destinatarios, agentes y ciudadanos-as, una información general sobre el servicio (objetivos, líneas de trabajo...) así como información particular (programas, actividades, horarios...) siguiendo siempre el plan de difusión acordado previamente entre el ayuntamiento y el adjudicatario. En dicho plan detallarán la información que se debe difundir, y cuando (comienzos del curso escolar, en vacaciones, en fechas señaladas..) el objetivo de los mismos ( fomento del uso, informar de los programas,... ) y los medios utilizados para ello (medios de comunicación, manuales, sitio web de Aretxabaleta, agenda, redes sociales...).

#### **Formación continua**

La formación de los trabajadores del servicio HBAZ (ludoteca y colonias de verano)será responsabilidad del adjudicatario.

Por otro lado, el adjudicatario hará un esfuerzo por participar en los grupos de trabajo de jóvenes que pueda organizar el ayuntamiento o en los surgidos a nivel territorial al amparo de Gaztematika (Foro de educadores, grupos de trabajo concretos...).

### **3.3. Desarrollo de las líneas transversales**

Se pondrán en marcha las correspondientes estrategias para el desarrollo de las líneas transversales señaladas en el punto 1.3. de estos Pliegos en cada curso escolar, siguiendo los criterios que a continuación se señalan:

- Euskera:

La lengua de servicio de HBAZ será el euskera; será lengua de trabajo (para relaciones, coordinación organización...) y de atención a los usuarios. Para ello se garantizarán los requisitos necesarios: educadores euskaldunes, material en euskera, planificación para el fomento del uso del euskera....

Se implementarán estrategias para el fomento del uso del euskera, el fomento de actitudes a favor del euskera y dar a conocer la cultura vasca, siempre atendiendo a la realidad lingüística de cada usuario. En este sentido HBAZ deberá ser así mismo referente para el refuerzo lingüístico de los niños-niñas que carecen de las necesarias aptitudes lingüísticas. El servicio interiorizará y pondrá en marcha la metodología y las estrategias que ayuden en el aprendizaje y uso del

idioma.

- Igualdad entre hombres y mujeres

En el servicio HBAZ se trabajará intensamente para conseguir la igualdad de oportunidades entre niños y niñas.

### 3. Integración-inclusión

Teniendo en cuenta la pluralidad existente entre niñas y niños, los servicios prestarán especial atención a las personas con dificultades sociales, deficiencias físicas, psíquicas o sensoriales, actitudes peligrosas....).

Participación

Además de tener siempre en cuenta la opinión de los niños-as, se fomentará la participación de los mismos-as en el proceso de organización, utilizando la metodología más adecuada para cada edad.

## 4. INFRAESTRUCTURAS Y MEDIOS MATERIALES

### 4.1. Infraestructuras.

#### LUDOTECA

El ayuntamiento facilitará el local y el equipamiento básico (mobiliario del local y la oficina, equipamiento informático y material básico). Así mismo serán con cargo al ayuntamiento los gastos de luz, agua, teléfono y los relativos a la conexión a internet, y se responsabilizará de la limpieza básica.

El adjudicatario será responsable del suministro del material de oficina y del buen uso del local y del equipamiento. Así mismo será responsabilidad del adjudicatario mantener el local y las oficinas en el debido estado de mantenimiento. Serán a cuenta del adjudicatario todos los gastos, tasas y demás impuestos que surjan por otros usos.

#### COLONIAS ABIERTAS

Las colonias se desarrollarán en la calle y en distintas instalaciones del municipio. El uso de los mismos será acordado previamente por el ayuntamiento con los responsables de las instalaciones municipales y los centros escolares. El ayuntamiento se encargará del coste de los mismos.

Serán por cuenta del adjudicatario los gastos del material necesario para el desarrollo de las colonias y las actividades: juegos de mesa, otros juegos, material de talleres, salidas, actividades especiales...

Deberán mantenerse en el debido estado de mantenimiento tanto las instalaciones como el equipamiento básico utilizando los medios necesarios para ello. Si se produjesen desperfectos los gastos ocasionados con motivo de los mismos serán por cuenta del adjudicatario.

### 4.2. Medios materiales

En el precio de licitación se fijará una cantidad mínima anual, para la compra del material necesario para la consecución de las actividades del servicio: 7000 euros para las colonias de verano, para material y actividades y para la ludoteca 1500 euros, mínimo. Dicha cantidad será una cantidad fija y no se podrá mejorar a la baja. El adjudicatario deberá utilizar la cantidad mencionada en la compra de material o en las actividades. La liquidación correspondiente a los mismos será presentada junto con la evaluación de la actividad, ante el ayuntamiento con las correspondientes facturas y balance de ingresos. Si por cualquier motivo no se utilizase dicha cantidad reservada para compra de material dentro del año correspondiente, el licitador devolverá la cantidad restante de la utilizada al ayuntamiento, en el momento de la liquidación.

## 5. CALENDARIO Y HORARIOS DEL SERVICIO

### 5.1. LUDOTECA

2. De mediados de septiembre a mediados de junio. De lunes a viernes de 16:45 a 19:30.

### 5.2. COLONIAS DE VERANO

Las colonias de verano son de lunes a viernes durante 3 semanas de julio (15 días). El horario será el siguiente: 10:00-12:30 15:00-17:00.

No obstante tanto el calendario como los horarios pueden sufrir alteraciones teniendo en cuenta la demanda del servicio y las necesidades existentes, respetando en todo momento el número de horas establecido.

## 6. REQUISITOS DEL GRUPO DE TRABAJO ADSCRITO AL SERVICIO Y DEL ADJUDICATARIO.

### 6.1. Recursos humanos

#### 3) Servicio de ludoteca

Contará con dos monitores, de lunes a viernes, desde mediados de septiembre a mediados de junio. En septiembre se contará con una semana para llevar a cabo la planificación anual, el día de puertas abiertas y en junio para hacer

un inventario, hacer una evaluación y redactar el informe final.

De lunes a viernes:

Atención directa: De 16:45 a 19:30

Labores propias del servicio: Se prevén 4 horas mínimo. La distribución de las mismas será acordada entre el adjudicatario y el responsable del área de juventud durante el año. Estas horas además de para preparación del día a día, serán utilizadas para formación, coordinación y trabajos similares..

Además de estas horas para asuntos propios del servicio, la tercera semana de septiembre y la tercera de junio se utilizarán para planificación, informes de evaluación, inventarios y demás. La jornada que se prevé durante estos días es de 4 horas.

Serán los/las técnicos de la ludoteca quienes se coordinen con el servicio de juventud.

#### **4) Colonias de verano**

Contarán con **dos coordinadores** que serán los trabajadores de la ludoteca.

Las colonias de verano se prepararán en junio.

En julio trabajarán de 9:30 a 13:00 y de 14:30 a-17:00 como mínimo.

El **número de monitores/as**, será determinado por el número de niños/as inscritos, y siempre respetando los ratios señalados en el art. 2 del Decreto 170/1985 de 25 de junio, por el que se regula el régimen de campamentos, colonias, colonias abiertas, campos de trabajo y marchas volantes infantiles y juveniles.

El horario de los/las jóvenes que participen como monitores/as será de 9:30 a 13:00 y de 14:30 a 17:00, durante el mes de julio.

Se organizarán distintas reuniones de planificación en las que deberán participar todos los monitores, los cuales serán fijados con la debida antelación. Dichas reuniones serán organizadas por los coordinadores de las colonias. Estas reuniones tendrán una duración aproximada de 8 horas.

El adjudicatario está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia de Trabajo, Seguridad Social y seguridad e higiene en el trabajo y Prevención de riesgos laborales. El ayuntamiento se exime de cualquier responsabilidad si no se cumpliesen dichas disposiciones.

Si durante la vigencia del contrato hubiese necesidad de sustituir a algún trabajador, el adjudicatario dispondrá de una/una sustituto que cumpla con el perfil solicitado.

#### **6.2. Perfil de los trabajadores**

Los/las trabajadores adscritos al servicio deberán contar con la siguiente preparación:

##### **1) Educadores/as de la ludoteca**

Tener cumplidos 18 años .

Contar con el grado o estar realizando estudios relativos a Educación Social o también contar o estar realizando estudios medios o superiores del área de las Ciencias sociales o la educación (magisterio, pedagogía, psicología, sociología...)

EGA Euskararen gaitasun agiria

##### **2) Monitores/as de colonias**

Tener cumplidos 18 años .

Contar con el título EGA de euskera o un buen nivel de euskera ( en este caso para su comprobación el ayuntamiento podrá preparar las pruebas correspondientes).

Además de estos condicionantes mínimos se acordará anualmente, entre el ayuntamiento y los /las coordinadores de las colonias de verano, el sistema de puntuación para la elección de monitores

#### **6.3. Presentación de la documentación correspondiente a los/las monitores contratados**

Antes de comenzar a la ejecución del contrato, la empresa adjudicataria deberá presentar la siguiente documentación de los/las trabajadores adscritos al servicio:

Documento que certifique el alta en la Seguridad Social

Copia del Contrato de Trabajo

Documentación acreditativa de la preparación exigida (titulación, experiencia, competencia lingüística)

### **7. REQUISITOS LINGÜÍSTICOS**

**7.1. Competencia lingüística:** En sus relaciones con la administración o terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante; por ello, teniendo en cuenta la naturaleza del servicio a contratar:

- 1) Los/las educadores de la ludoteca y los/las responsables de las colonias abiertas de verano deberán acreditar el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia (equivalente al EGA)
- 2) Los/las monitores de las colonias deberán acreditar oralmente el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia (equivalente al nivel hablado de EGA).

Previa a la adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, se incorporen nuevas personas a prestar el servicio, deberán acreditar la competencia lingüística precisa.

La acreditación de la competencia lingüística podrá hacerse de la siguiente manera:

1. Presentando los documentos que acrediten que las personas que prestarán el servicio cumplen con la competencia lingüística exigida, o
2. Tomando parte en las pruebas que con ese objeto realice la administración (la acreditación que se obtenga carecerá de valor en cualquier otra instancia).

**7.2. Paisaje lingüístico:** Todos los elementos que configuren el paisaje lingüístico (rótulos, murales, avisos,...) estarán en euskera.

**7.3. Relaciones con los usuarios del servicio:** La atención, tanto verbal como escrita, a los niños usuarios del servicio se hará en euskera. La atención a padres y demás ciudadanos también se llevará a cabo en euskera, pero teniendo en cuenta que el ciudadano puede elegir el idioma oficial que prefiera. En las comunicaciones escritas en bilingüe, se dará prioridad al euskera.

**7.4. Relaciones administrativas:** Todas las comunicaciones verbales o escritas generadas en virtud de este contrato (facturas, contratos, informes, reuniones, consultas...) entre el adjudicatario y el contratista serán en eusk

## **8. INVENTARIO**

El adjudicatario llevará a cabo un inventario inicial junto con el ayuntamiento; el mismo deberá estar actualizado durante la ejecución del contrato, se responsabilizará de su cuidado y pondrá en conocimiento del ayuntamiento cualquier anomalía relativa a desapariciones o daños.

Quedarán en manos del ayuntamiento al finalizar el contrato tanto los bienes que existan al comienzo del contrato como los que aporte a las instalaciones el adjudicatario-a, todos ellos en el debido estado de funcionamiento.

## **9. REVISIÓN**

El ayuntamiento podrá inspeccionar todas las actividades relacionadas directamente con el servicio HBAZ para verificar las obligaciones del adjudicatario. Podrá inspeccionar si se cumplen las condiciones técnicas del adjudicatario. Además de la inspección por parte de la Administración, el adjudicatario deberá controlar permanentemente los servicios.

## **10. RESPONSABILIDAD DEL ADJUDICATARIO**

Será responsabilidad del adjudicatario y asumirá todos los daños ocasionados como consecuencia del cumplimiento del servicio, atendiendo a lo dispuesto en el art. 214 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. Así mismo se hará cargo de todo tipo de accidentes o episodios dañinos que puedan sufrir los-las destinatarios.

Para ello, y previo a la puesta en marcha del servicio la empresa adjudicataria contratará un Seguro de Responsabilidad Civil con una empresa aseguradora que cubra el objeto del servicio.

## **12. PRECIO DEL CONTRATO**

El precio del contrato del primer año será de 78000 euros más 7.800 euros correspondientes al IVA, importe que puede ser mejorado a la baja por los licitadores.

Dentro del precio del contrato se destinarán como mínimo 7000 euros para material de colonias y 1500 euros para material de la ludoteca. Dichas cantidades no podrán ser rebajadas por los licitadores en las ofertas presentadas y deberán ser utilizadas obligatoriamente para compra de material de los servicios mencionados y pagos a trabajadores-as especializados no adscritos al coste del servicio.

Se incluyen dentro del precio todos los gastos e impuestos originados como consecuencia del contrato.